

✓ Zer dira hezkuntza-estiloak edo familia-diziplinak?

- Gurasoek beren seme-alabak hazi eta hezterakoan jarraitzen duten eredu-multzoa.
- Eredu horiek asko zehazten ditu gurasoek haurren garapenaz eta hezkuntzaz dituzten ezagutzak eta gurasoen nortasunak, sinesmenak, balioak eta bizipenak, baina baita seme-alaben banako ezaugarriek ere.
- Diziplina-motak erabakiko du batez ere etxeko bizikidetasunaren kalitatea.

✓ Diziplina demokratikoa

Ezaugarriak

- Indukzioan oinarritzen da: gurasoek haien seme-alaben alderdi positiboenak azpimarratzen dituzte, akatsen lekuan, haien gauzarik onena lortze aldera
- Gurasoen laguntza emozionala seme-alabekiko
- Seme-alabak onartzea
- Afektua eta maitasuna argi eta garbi adieraztea
- Gurasoek interesa erakustea eta inplikatzeko haien seme-alaben jardueratan: ikasketak, jolasak, lagunak,...
- Gurasoen eta seme-alaben arteko elkarriketa eta entzute aktiboa
- Arauak erabakitzerakoan elkarrekin parte hartzea: familiako arauak arrazoiatzea eta negoziatzea
- Lanak eta erantzukizunak zuzen eta behar bezala banatzea
- Zigorren eta zigortu beharreko portaeraren arteko koherentzia

Ondorioak

- Enpatia sustatzeaz gain, gizartearen aldeko jokamoldea errazten da; hau da, "bestearen lekuan jartzea" eta horren arabera jokatzeko
- Haurrak autoestimu handiarekin hazten dira, maitatuak, errespetatuak, entzunak eta kontuan hartuak sentitzeagatik
- Haurren erantzukizuna eta autonomia pertsonala garatzen da
- Autokontrola eta egonkortasun psikologikoa
- Konfiantza haien gaitasunekin eta aurre hartzeko ahalmena
- Erabaki lasaiak eta egokiak hartzea, aldekoak eta kontrakoak aintzat hartuta
- Etxean gatazkarik ez
- Gurasoak gustura egotea seme-alabak hazterakoan eta guraso izatearekin
- Kalitatezko familia-giroa
- Eskolara eta gizartera ederki moldatzea



EGIN BEHAR DENA

- Emozioak adieraztea eta komunikatzea: norberaren sentimenduez hitz egitea, elkar ulertzea sustatze aldera
- *Afektua eta laguntza trukatzeko erraztea familiako kideen artean*
- Nahi diren portaerak *gorestea eta saritzea*, berriro errepika daitezkeen
- *Arretarik ez jartzea* behar ez bezala arreta lortzeko helburua soilik duten nolabaiteko portaerei (oihuak, kasketak,...)
- Gaizki egindakok modu *koherentean* zigortzea: zigorrak lotura izatea zigortu nahi den portaerarekin, eta zigorra berehala jartzea. Zigorrak eragin handiagoa izaten du arrazoiak agertuz gero; gogorra baina laburra izan ohi da, eta portaera txar hori sortzen den bakoitzean jarri behar da
- *Segurtasun fisikoa eskaintzea*: arriskurik gabeko ingurunea
- *Garapen psikologikoa bultzatzea eta trebetasun sozialak ikastea*, gurasoek eta seme-alabek paper diferenteak (irakasleak, ikasleak, medikoak,...) egin behar dituzten jolasen bitartez
- *Esperientzia-mota ezberdinak proposatzea* (bidaiak, ibilaldiak), elkarrekin denbora pasatze aldera
- *Sozializazioa garatzen laguntzea*: haurrek beren aisia-jarduerak adin bereko beste haurrekin partekatzea erraztea, mugimendua eta ariketa fisikoa eskaintzen duten espazioetan (parkeak, plazak,...)

EGIN BEHAR EZ DENA

- Emozioak **gordetzea**, ez ulertzeko beldurrez, edota sentimenduak ez adieraztea
- **Aldentzea** afektua eta maitasuna adierateko orduan
- **Aintzat ez hartzea** seme-alaben portaera ona, beti horrela izan behar duela uste izateagatik
- **Zigorrak jartzea edo zigorrekin mehatxua egitea** portaera onetik zertxobait gaizki egiten duenean. Haurrek gurasoen mugak probatzen dituzte, nora iritsi dezaketen ikusteko, eta askotan zigorrak garapena muga dezake
 - **Zigor fisikoa** edo zigor nahiko gogorrak ezartzea portaera zuzentzeko. Haurraren gurasoekiko gorrotoa edo beldurra sor daiteke, gordeka ibili daiteke edo larritasuna garatu dezake zigorraren beldurrez
- **Zigor neurrigabeak**, inkoherenteak eta denboraz pasatakoak eta “zeren bai”, “nik esan dudalako” eta “zure aita naizelako” bezalako esaldiak erabiltzea
- **Axolagabea izatea** eta ez arduratzea haurraren segurtasun fisikoaz
- **Denborarik ez hartzea** seme-alabekin egoteko. Jolasaren bitartez “ikuspegia hartzen” ikasten da; hau da, bestearen lekuan jartzen
- Seme-alabak **gehiegi babestea** erori eta mina hartuko duten beldurrez. Horrek haien portaera soziala mugatzen du, eta beste haurrekiko harremanean eragin negatiboa izaten du. Gainera, haien mugimen-garapena zailtzen da

- **Kide guztiak demokratikoki parte hartzea gonbidatzea:** arauak eta erregelak ezartzeari buruz hitz egitea, baita ere, denei dagozkien erabakiak hartzeko ere
- **Ordutegi finkoak ezartzea jateko, ikasteko, jolaserako,..., eta beti errespetatzea**
- **Ezarritako arauak jabetzea**
- **Ahal den guztietan elkarrekin jaten saiatzea eta elkarriketa bultzatzea.** Familiako komunikazioaren bitartez, guztien hiztegia eta hitzen eta emozioen adierazpena hobetuko da
- **Eguneroko jardueren inguruan interesa erakustea (eskolan zer moduz ibili den, nola dagoen egun oso igaro eta gero,...)**
- **Leku finkoa hautatzea jolasak egiteko nahiz ikasteko**
- **Komeni da gurasoek eskolarekin harreman onak izatea.** Irakasleekin hitz egitea joan behar lukete seme-alaben errendimendua eta portaera nolakoak diren jakite aldera. Oso garrantzitsua da gurasoek eta eskolak elkarrekin parte hartzea haurren hezkuntzan eta sozializazioan
- **Gurasoek ahal dela ez dute eztabaidatu behar seme-alaben aurrean, bereziki bikote-arazoetaz ari direnean, haurren inguruan edo elkarriketan oso altu eta gogor aritutakoan.**

- Ontzat eman behar diren **arauak eta erregelak ezartzea.** Modu horretan, haurraren independentzia eta autonomia zailtzen dira, eta ez dago aukerarik gauzen zergatiak arrazoitzeko eta ulertzeko
- **Ordutegi finkorik eza** eguneroko jarduerak egiteko. Ordena nahastu egiten da
- **Arauak ez betetzen uztea** egoera lasaitzearen (kasketak, oihuak,...) eta nahi dutena lortzea egokitzen ez den moduan
- **Ordutegiari dagokionez, alde handiak egotea,** eta biltzeko eta hitz egiteko aukerarik ez sortzea. Etxean bakoitzak bere ordutegia izanez gero, bakoitza bere aldetik ibiliko da eta familatik urrunduko da etxean bertan
- **Behar adina interesik ez erakustea** egunean zehar bakoitzari zer gertatu zaion jakiteko edo egunari buruz galdetegia egitea
- Jolasteko nahiz ikasteko egunero leku desberdina **erabiltzen uztea.** Horrek kontzentratzea bultzatu ordez, desordena sortzen du
- **Eskolako deiei kasurik ez egitea** eta behar adina interesik ez erakustea haurra eskolan nola dabilen jakiteko. Eskolaren eta gurasoen arteko lankidetzarik ez badago, zaila izango da haurrak hoberako aldaketak ematea
- **Seme-alaben aurrean eztabaidan aritzea edo haserretzea.** Bikotean indarkeria dagoela ikusteak seme-alabei beldurra eta segurtasun-eza eragiten die, eta portaera antisozialak sortzen dira

- *Koherentzia erakustea gurasoen disziplinan. Komeni da beti hezkuntza-ildo demokratikoa jarraitzea; izan ere, aldaketek haurrak nahas ditzakete haiengandik zer espero dugun pentsatzerakoan*
- *Gurasoek esperientziak partekatu eta haien artean komunikatu behar dute, seme-alabek ikus dezaten nola diren komunikatzeko eta eztabaidatzeko jarraibideak*
- *Anai-arreben arteko lankidetzaz bultzatzea, lanak egiteko*
- *Anai-arreben arteko loturak berrestea eta indartzea, bata bestearen segurtasun-oinarria izan dadin, batez ere aldaketa edo krisi egoeratan (dibortzioak,...)*

- Batak bestea **gaizki uztea** edo agintea kentzea seme-alaben aurrean. Erabaki bat hartuz gero, errespetatu egin behar da edo, edonola ere, eztabaidatu; aldiz, inoiz ez du beste bikoteak baliogabetu. behar
- Haurra **bitartekari** bezala erabiltzea gurasoen arteko komunikazioan. Haurra mezulari edo mandatari bihurtzen da
- **Anai-arreben arteko konparaketak egitea.** Haien artean lehiak eta jeloskortasunak sortzeaz gain, harremanak txartzen dira
- Bati besteari baino gehiago **baimentzea**: bestea baino gutxiago dela senti dezake.